

14/25

IRIZPENA _ DICTAMEN

Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa /

/ sobre el Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral

Bilbao, 2025eko abenduaren 19a / 19 de diciembre de 2025

I. AURREKARIAK

2025eko abenduaren 4an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, Eusko Jaurlaritzak, haurren, nerabeen eta familien arloan eskumena duen sailaren bitartez, norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko politikaren esparruan emango dituen laguntzak arautzea. Jasotako hiru kategoriak honako hauek dira: Hiru urtetik beherako adingabeak zaintzeko lan-eszedentzian dauden edo hamabi urtetik beherako adingabeak zaintzeko lanaldi-murritzeta duten langileentzako laguntzak; mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko lan-eszedentzian dauden edo lanaldi-murritzeta duten langileentzako laguntzak; eta 14 urtetik beherako adingabeak zaintzeko pertsonak kontratatzeagatik Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko laguntzak.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2025eko abenduaren 16an Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran berresteko. Aho batez onartu zen

I. ANTECEDENTES

El 4 de diciembre de 2025 tuvo entrada en el Consejo Económico y Social Vasco escrito del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico solicitando informe sobre el *“Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral”*, según lo establecido en el artículo 3.1 de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco.

La norma que se nos consulta tiene por objeto, según se expone en su artículo 1, regular las ayudas que, en el marco de la política de conciliación de la vida personal, familiar y laboral, otorgará el Gobierno Vasco, a través del departamento competente en materia de infancia, adolescencia y familias. Las tres categorías recogidas son: Ayudas a personas trabajadoras en excedencia laboral para cuidar a persona menor de tres años o que tengan reducción de jornada laboral para cuidar a persona menor de doce años; ayudas a personas trabajadoras en excedencia laboral o con reducción de jornada laboral para cuidar a familiares dependientes o en extrema gravedad sanitaria; ayudas para sufragar las cotizaciones a la Seguridad Social por contratar a personas para cuidar a persona menor de 14 años.

De manera inmediata fue enviada copia del documento a todos los miembros del Pleno del Consejo a fin de que remitieran sus propuestas y opiniones y dar traslado de estas a la Comisión de Trabajo pertinente, según lo establecido en el Reglamento de Funcionamiento del Consejo Económico y Social Vasco.

El 16 de diciembre de 2025 se reúne la Comisión de Desarrollo Social y, a partir de los acuerdos adoptados, se formula el presente Proyecto de Dictamen para su elevación al Pleno del Consejo, donde se aprueba por unanimidad.

II. EDUKIA

“Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuak” honako hauek jasotzen ditu: zioen azalpena, 44 artikulua lau kapitulutan, xedapen gehigarri bat, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Zioen azalpenak dioenez, 2003. urteaz geroztik –une horretan arautu ziren familia eta lana bateragarri egiteko lehen laguntzak–, familiaren eta lanaren kontziliazioa sustatzera bideratutako dirulaguntza-ekintzei buruzko araudia hobetu da eta estaldura zabaltzen joan da gerora egindako zenbait dekreturen bidez. Igarotako denboran, euskal gizarteak bilakaera izan du eta erronka berriak sortu dira, eta horiei erantzun behar zaie.

Ildo horretan, Familiei, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakunde arteko V. Planak honen aldeko apustua egiten du: ikerketan, berrikuntzan, ebaluazioan eta haurren eta familien gaineko eraginean oinarritutako programak eta zerbitzuak sustatzea. Era berean, guraso bakarreko familien egoera bereziari erantzuteko, Eusko Jaurlaritza izapideak egiten ari da guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen Dekretua onartzeko.

Azaldutako guztiagatik, kontziliazioaren arloko dekretuak egokitu behar dira arau-, gizarte- eta ekonomia- arloko berrikuntzetara.

Orain kontsultatzen zaigun dekretuaren I. Kapitulua xedapen orokorrak arautzen ditu. II. Kapitulua adingabeak eta mendeko senideak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzak arautzen ditu, bai eta osasun-egoera oso larrian daudenentzako laguntzak ere. Erregulazio horrek ordeztu egiten du Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretua.

Berritasun esanguratsuenetako bat da laguntzak eskuratzeko gutxieneko aldiari jarraipena emateko baldintza kentzea. Ondorioz, iraupen txikiagoko eszedentzia-aldiak edo lanaldi-murrizketak batu daitezke, eskatutako 59 eguneko gutxieneko aldira iritsi arte. Aldaketa horrekin kontziliazioa errazten da, pertsonak eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu ahal izango baitute, behar-beharrezkoak diren aldietan.

Gainera, senitartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu ahal izango dute lehen edo bigarren mailako odol-ahaidetasuneko ahaideak, edo osasun-egoera oso larriaren kasuan lehen mailako ezkontza-ahaidetasuneko ahaideak. Luzapen horrek erantzuten die

II. CONTENIDO

El *“Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral”* consta de exposición de motivos, 44 ordenados en cuatro capítulos, una disposición adicional, tres transitorias, una disposición derogatoria y dos finales.

Explica la exposición de motivos que desde 2003, cuando se aprobaron las primeras ayudas a la conciliación de la vida familiar y laboral, se ha ido ampliando la cobertura y mejorando la normativa de las acciones subvencionables dirigidas a la promoción de la conciliación de la vida familiar y laboral en sucesivos decretos. En el tiempo transcurrido, la sociedad vasca ha evolucionado y han surgido nuevos retos a los que hay que dar respuesta.

En este sentido, el V Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias, la Infancia y la Adolescencia apuesta por promover programas y servicios basados en la investigación, la innovación, la evaluación y el impacto sobre la situación de la infancia y las familias. Así mismo, y con el objetivo de dar respuesta a la especial situación de las familias monoparentales, el Gobierno Vasco está tramitando la aprobación del Decreto por el que se regula el régimen de las familias monoparentales.

Por todo lo expuesto, es preciso adecuar los decretos en materia de conciliación a las novedades normativas, sociales y económicas.

El capítulo I del decreto que ahora se nos consulta regula las disposiciones generales. El capítulo II regula las ayudas a personas trabajadoras en excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de menores y de familiares dependientes, así como aquéllos que se hallen en situación de extrema gravedad sanitaria. Esta regulación sustituye a la del Decreto 164/2019, de 22 de octubre, sobre Ayudas para la Conciliación de la Vida Familiar y Laboral.

Una de las novedades más significativa es la eliminación del requisito de continuidad del periodo mínimo para acceder a las ayudas. Como consecuencia, se pueden sumar periodos de excedencia o reducción de jornada de duración inferior, hasta alcanzar el periodo mínimo exigido de 59 días. Con esta modificación se facilita la conciliación al permitir que las personas puedan acogerse a una excedencia o a una reducción de jornada por los periodos que les sea estrictamente necesarios.

Además, se podrán acoger a una excedencia o reducción de jornada para el cuidado de familiar quienes tengan parientes de primer o segundo grado de consanguinidad o de primer grado de afinidad en situación

egunero laguntza behar duten eta orain arte kontuan hartu ez diren gurasoak zaintzeko eskaerei.

Bestalde, laguntzei dagozkien zenbatekoak eguneratu dira, herritarrek behin eta berriz egindako eskaerari erantzuteko. Era berean, eguneratze berriak aurreikusten dira aurrekontu-arauen bidez. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko betebeharrari dagokionez, 164/2019 Dekretuan araututako salbuespena mantentzen da.

Azkenik, enplegu-aniztasuneko egoeretarako laguntzaren erregulazioa eguneratu da; izan ere, kasuistika zabalagoa eta mota askotarikoagoa da orain, eta horrek erregulazio zehatzagoa eskatzen du, dekretu honen helburuekin bat datorren eta lurraldeari dagokionez homogeneoa den administrazio-jarduketa bat bermatu ahal izateko.

III. kapituluak arautzen ditu adingabe bat 14 urte bete arte zaintzeko langileak kontratatzearen ondoriozko Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko laguntzak. Laguntza-lerro hori 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko 102/2022 Dekretuan araututa zegoen. Dekretu honetan sartzearekin batera, testu arauemaile bakar batean biltzen dira Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak kudeatzen dituen norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko laguntza guztiak. Berrikuntza gisa, laguntza-lerro honetan, eskatzaileak ez du zertan egunean izan Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

IV. kapituluak dekretuarekin zerikusia duten prozedurazko gai guztiak arautzen ditu. Zehazki, honako hauek aipatzen ditu: eskabideak aurkeztea, laguntzak izapidetzeko eta ebazteko prozedura; eskatzaileek aurkeztu beharreko egiaztagiria; eta, azkenik, ezartzen du laguntzak eskatzerakoan interesdunek kontuan hartu behar dituzten baztertzeen, bateraezintasunen eta laguntzen arteko konkurrentziaren araubidea.

de extrema gravedad sanitaria. Esta ampliación responde a numerosas solicitudes para cuidar de las personas progenitoras que requieren de ayuda diaria y que hasta ahora no habían sido tenidas en cuenta.

Por otra parte, se han actualizado los importes correspondientes a las ayudas en respuesta a una demanda reiterada por la ciudadanía. Asimismo, se prevén nuevas actualizaciones a través de normas de carácter presupuestario. En cuanto a la obligación de estar al corriente en las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, se mantiene la exoneración regulada en por el Decreto 164/2019.

Por último, se ha actualizado la regulación de la ayuda para las situaciones de pluriempleo debido a que la casuística es ahora más amplia y variada, lo que exige una regulación más detallada que permita garantizar una actuación administrativa acorde a los objetivos del presente decreto y que sea territorialmente homogénea.

El capítulo III regula las ayudas para sufragar las cotizaciones a la Seguridad Social derivadas de la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de una persona menor hasta que cumpla 14 años. Esta línea de ayudas estaba regulada en el Decreto 102/2022, de Ayudas a la Contratación de Personas Trabajadoras para el Cuidado de Hijas e Hijos Menores de 14 años. Con su inclusión en este decreto se reúne en un único texto normativo todas las ayudas para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral gestionadas por el Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico. Como novedad se exime en esta línea de ayudas la obligación de la persona solicitante de encontrarse al corriente de las obligaciones de pago de la Seguridad Social.

El capítulo IV regula todas aquellas cuestiones procedimentales relacionadas con el decreto. Concretamente, se refiere a la presentación de solicitudes, procedimiento de tramitación y de resolución de las ayudas; documentación acreditativa a presentar por los solicitantes; y, finalmente, establece el régimen de exclusiones, incompatibilidades y concurrencia entre ayudas que los interesados deben tener en cuenta a la hora de solicitar las mismas.

III.- GOGOETA OROKORRAK

I - Aldez aurreko gogoeta. Bizkortasuna eta ondorioak EGABen lanean.

Lehenik eta behin, *“Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko dekretu-proiektua”* Kontseilu honetara azkar bidali dela azpimarratu nahi dugu. Horren gaineko irizpena urgentziaz eskatu digute, eta, beraz, epe guztiak erdira laburtu dira. Gogoratu behar dugu 2019an Dekretu hau baldintza berdinetan bidali zizaigula.

Une hartan (ikus [10/19 Irizpena, uztailaren 19koa](#)), honako hau adierazi genuen: Gure ustez, denborak egoki ez erabiltzeak dakarren emaitza praktikoaren ondorioz, Kontseilu honen kontsulta-funtzioa murrizteaz gain, dekretu-proiektu bati buruzko irizpena eman behar da. Izan ere, proiektu horren hedadura eta garrantzia kontuan hartuta, eztabaidarako denbora-tarte eskuzabalagoak eta dekretuaren artikuluetan sakonago txertatuko diren proposamenak beharko lirateke.

Era berean, faltan botatzen dugu dokumentazio garrantzitsuaren azterketa pausatuagoa egiteko aukera, hala nola genero eraginari edo inpaktu ekonomikoari buruzko txostenak, bidaltzen zaigun funtsezko dekretu batean.

II - Balorazio orokorra

“Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektua” aurkeztu da, Eusko Jaurlaritzak bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko politikaren esparruan ematen dituen laguntzak arautzen dituen, kontziliazioaren arloan indarrean dagoen araudia araudi, gizarte eta ekonomia arloko berrikuntzetara egokitzeko.

Familiei laguntzeko sistema publiko bat funtsezkotzat jotzen dugu, laguntza publikoetatik harago doana, aurretik ere adierazi dugun bezala. Balorazio hori justifikatzeko, 10/19 Irizpenaren laburpen hau berreskuratu dugu:

“Euskal familien lana eta bizitza pertsonala hobeto uztartzeko laguntza ekonomikoen multzo bat arautzen duen arau honi buruzko irizpena eman aurretik, helburu hori lortzen lagunduko duten zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza nahikoa eta zabala hornitzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu, diru-laguntzak beharrezkoak baitira, baina ez nahikoak.

*Eta, ildo horretan, berretsi egiten dugu martxoaren 9ko 4/2018 Irizpenean adierazitakoa, “Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko proiektuari” buruzkoa, zeinean Kontseilu honek baloratzen baitzuen “laguntza ekonomikoek betetzen duten eginkizun garrantzitsua”, baina, gainera, irizpen honetarako ere baliagarria izan daitekeen gogoetatzat jotzen zuen “**prestazio ekonomiko nahikoak emateaz gain, funtsezkoa da zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza nahikoa zabala finkatzea, familiek nahi duten ondorengoak izan ditzaten eta beren bizitzako eremuak behar bezala kontziliatu ditzaten**”.*

Era berean, martxoaren 21eko 5/22 Irizpenaren ondorioak berresten ditugu, *“14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen dekretu-proiektuari”* buruzkoak:

“Seme-alabak dituzten familien ekarpena balio ordainezinekoa da, bai familiarentzat berarentzat, bai gizarte osoarentzat, eta une honetan, egungo kontziliazio beharrei erantzun ahal izateko, familia politikaren ikuspegiak eboluzionatu eta ikuspegi integralago baterantz egin behar du aurrera.

Gaur egun bizi dugun testuinguruan, seme-alabak hazteak eragiten dituen gastuak aintzeaz gain, funtsezkoa da gizarte osoaren eta erakunde publikoen erantzunkidetasuna onartzea, bereziki 14 urtetik beherako haurren eta gazteen zaintzan, eta norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko neurri eta baliabide berriak aztertzea, seme-alabek adin hori izan arte”.

Egoera horren aurrean, **zaintzaren kudeaketaren aitorpen sozial eta ekonomikoa** aldarrikatzen dugu, lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egiten direla bermatzeko.

III - Beste gogoeta orokor batzuk

Lehenengoa. Genero-ikuspegia txertatzea

Dekretu-proiektua aztertuta, ondorioztatzen da ezen, zioen azalpenean adierazten bada ere araua genero-ikuspegia txertatuz sortu dela eta zaintzaren esparruan eredu erantzukide bat sustatzera bideratu dela, orientazio hori ez dela gero artikulura eramaten, zeinak ez baitu aurreikuspen substantiborik kontziliazio-neurriek emakumeengan eta gizonengan sortzen dituzten ondorio bereziak jorratzeko. Bereziki, esanguratsua da araututako laguntzak —lan-eszedentziak, lanaldi-murrizketak eta adingabeak zaintzeko kontratazioak—, eskura dagoen ebidentziaren eta aurreko dekretuetan ikusitako joeren arabera, argi eta garbi emakumeek erabiltzen dituztela, eta horrek eragin negatiboa du berdintasun eraginkorrari dagokionez, bai emakumeen lan-partaidetzan, bai haien ibilbide profesionalean.

Era berean, nabarmendu behar da 164/2019 Dekretuan gizonetakoaren erabilera sustatzeko sartutako mekanismoa ezabatu izana, nahiz eta eraginkortasun eskasean justifikatu, proiektatutako testuan ez dagoela emakumeen eta gizonen arteko zaintza-denboren banaketa desberdina zuzentzea ahalbidetzen duen beste neurririk. Horrela, pizgarri hori kentzeak, familiako erantzukizunetan gizonen parte hartzea erraztuko duten ordezkotresnekin ordezkatu gabe, kontziliazioko politika publikoak erantzukidetasunaren legeko helburuan laguntzeko duen gaitasunean atzera egitea eragin dezake, zainketa-lanak bere gain hartzeko eredu desberdina de facto sendotuz.

Aurrekoa ikusita, uste dugu **proiektuak ez diola behar bezala heltzen araututako neurriei lotutako genero inpaktu negatiboari, eta ez duela prebentzio edo zuzenketa mekanismorik txertatzen**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioekin eta 13/2008 Legean eta 2/2024 Legean erantzukidetasuna sustatzeko aurreikusitako aginduekin bat datorrela bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, egoki deritzogu honako hauek gomendatzeari:

1. **Genero eraginaren ex ante ebaluazioari** lege aldetik erantzutea, laguntzen erabilera historikoari buruzko datuak sexuaren arabera berezita jasotzen dituen eta genero arrakalan sakontzeko arriskuak identifikatzea ahalbidetzen duena.
2. Emakumeek eta gizonen eszedentzia- eta lanaldi-murrizketa-neurriak **modu orekatuan har ditzaten sustatzeko** arau-pizgarriak sartzeari, hala nola portzentajezko igoerak, bi gurasoek zaintza-aldiak modu ekitatiboan banatzen dituztenean.
3. **Urteko jarraipen- eta ebaluazio-betebeharrak** ezartzea, sexuaren arabera berezitatezko adierazle bidez, bai eta araudia berrikusteko mekanismoen aurreikuspena ere, erantzukidetasunaren helburua arriskuan jartzen duen erabilera nabarmen desberdina egiaztatuz gero.

Ondorioz, uste dugu dekretu-proiektua gaur egungo terminoetan onartzeak, neurri interesgarriak eta beharrezkoak jasotzen baditu ere, kontziliazioaren eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako ekarpena muga dezakeela, eta gomendagarria dela neurri gehigarriak sartzeari, Dekretua berdintasunaren eta erantzukidetasunaren arloan indarrean dagoen arau-esparrura erabat egokitzen dela bermatzeko.

Bigarrena. Seme-alaben zaintzaileak kontratatzeko laguntzak

*Dekretu-proiektuaren III. kapituluak 14 urtetik beherako seme-alaben zaintzaileak kontratatzeko laguntzak jasotzen ditu, Etxeko Langileentzako Sistema Berezian Gizarte Segurantzako kotizazio-kuotak diruz lagunduta.

Laguntza-ildo horrek besteekin alderatuta duen eragin mugatua egiaztatu nahi dugu (dekretu honetan jasotako kontziliaziarako laguntzak jasotzen dituzten familien % 5,8ren aukera dira)¹, bai eta Jaurilaritzak **bide eta baliabide berriak**

¹ Kontseilu honek egindako **EAEko 2024ko Memoria Sozioekonomikoak** honako hau jasotzen du “Familiei eta haurrei eta nerabeei laguntzeko politika publikoak” izeneko atalean: “... Bigarrenik, 14.499 langile (guztizkoaren % 17,6) izan ziren kontziliaziarako laguntzen onuradun 2023an (+% 9,1, 2022arekin alderatuta), eta horietatik 13.150ek laguntzak jaso zituzten seme-alabak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi murrizketan egoteagatik, 472k mendekotasun egoeran edo osasun egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko egoera horietako batean egoteagatik, **15ek** beren seme-alabak zaintzen dituzten pertsonak kontratatzeko laguntzak jaso zituzten (aurreko dekretua), 43k lan eszedentzian egoteagatik laguntzak jaso zituzten, gurasoek urtebetetik beherako adingabearen jaiotza eta zaintzagatik jasotako prestazio kontributiboan aldiak parekatzeko, eta,

aztertzeko beharra ere, familiek seme-alabak zaintzeko lanak eta lan-jarduera uztartzeko dituzten arazoei erantzuteko. Horretarako, oso komenigarria litzateke familia onuradunen multzoari eta neurri batzuk edo beste batzuk hartzeko arrazoiei buruzko diagnostiko bat izatea.

Hirugarrena. Hobetzeko proposamenak

Gogoeta espezifikoetan artikulatuak hobetzeko hainbat proposamen aipatuko ditugu, zaintza-premien aurrean gerta daitezkeen bi inguruabar bereziren aurrean **babes hobea** jasotzeko: hertsiki familiakoak ez diren lotura pertsonalak egotea edo familia batzuek jasaten dituzten zaintza-karga handiagoak.

- Zaintza-beharrak, familiaren eremua gainditzen duten loturen aurrean

Lan-bizitza uztartzeari eta zereginak banatzeari dagokionez, kontuan hartu behar da Administrazioak zaintza-lanak erraztea komeni dela familia gainditzen duten loturak dituzten pertsonen artean.

Binkulograma nahiko kontzeptu berria da, batez ere lana eta norberaren kontziliazioaren esparruan erabiltzen dena, eta pertsona garrantzitsuekiko konexioak (loturak) kudeatzeko eta indartzeko neurrien multzoari dagokio, ez familia biologikora mugatuz, baizik eta zaindu edo babestu nahi den lagun, bikotekide, lankide edo edozein pertsona barne hartuz, kontziliaziorako laguntza sare zabalago eta malguago bat ahalbidetuz. Figura hori, gainera, negoziazio kolektiboan jorratzen hasi da.

Gure ustez, kontsultatu zaigun arauan **binkulograma sartzeak** zaintza-lanak erraztu litzake ahaidetasun-lotura gaindituz, eta, gainera, zaintza-lanak ia soilik emakumeen esku ez geratzen lagun dezake.

Binkulograma bat definitzerakoan, adibidez, langileak berak artatzeko beharra izan dezaketen edo hark artatu nahi litzukeen 6 pertsona aukeratu ahal izatea ezar liteke. Horietako hirurentzat maila hurbila edo gertua ezarri. Lehenengo hiru pertsonak 1. graduako senide gisa aitortuko lirateke (hau da, langileak zaintzeko baimen berberak izango litzukete), eta beste hirurak 2. graduakoak izango lirateke. Pertsona horiek izendatzeko prozesua kontratazio bakoitzaren hasieran egin beharko litzateke, eta aldian-aldian berritu.

- Zaintza karga handienak dituzten familiak

Bereziki beharrezkotzat jotzen dugu dekretu berriak **familia ugarientzako** babes indartua jasotzea, antolamendu- eta ekonomia-karga handiagoak baitituzte. Ildo horretan, familia ugarientzat 24 asteko eszedentzia ordaindua eskaintzea baloratu liteke, bere garaian guraso bakarreko familiei eskaintzen zitzairen laguntzarekin parekatuz, eta beste bi aste gehiago emango lirateke laugarrenetik aurrera izaten den seme-alaba bakoitzeko.

Era berean, egokitatzat jotzen dugu dekretu honek **desgaitasuna duen pertsonaren bat** duten familietan kontziliazioa hobetzeko tresnak indartzea, eredu bidezkoagoa, malguagoa eta bizitza autonomoa eta baldintza berdinetan izateko eskubidea errespetatzen duena sustatuz. Hori dela eta, artikulatuak aldatzeko hainbat proposamen egingo ditugu gogoeta espezifikoetan.

amaitzeko, 819 pertsona izan ziren 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen onuradun (2023ko dekretua)". (Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA: 2023ko dirulaguntza programen ebaluazioa).

Azken batean, 834 familia kontziliaziorako laguntzen onuradunen % 5,8k baliatu zituzten zaintzaileak kontratatzeko Gizarte Segurantzaren kuoten hobariak.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

3. artikulua. Onuradunen baldintza orokorrak

2. atalak onuradunei eskatzen die “*Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroladatuta egotea modu jarraituan eskabidea aurkeztu aurreko urtean, edo, bestela, bost urtez jarraian aurreko hamar urteetan*”.

Ez dugu egokitatzat jotzen urtebeteko antzinatasuna duen erroldatzea baldintza gisa ezartzea; izan ere, horrek laguntzetatik kanpo utz ditzake bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak erabili behar dituzten langileak, soldatak murriztuta.

3 URTETIK BEHERAKO PERTSONA BAT ZAINTZEKO LAN-ESZEDENTZIAN DAUDEN EDO 12 URTETIK BEHERAKO PERTSONA ZAINTZEKO LANALDIA MURRIZTU DUTEN LANGILEENTZAKO LAGUNTZAK.

7. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu daitezkeen jardueren artean, 2. atalak honako hau jasotzen du: “*Lanaldi-murrizketa: gutxienez % 33ko lanaldi-murrizketan dauden langileei emango zaie diru-laguntza, adingabeak hamabi urte bete arte zaintzeko*”.

Uste dugu egokiagoa litzatekeela diruz lagun daitezkeen eremua **1/8ko lanaldi murrizketara** zabaltzea, Langileen Estatutuaren 37.6 artikulua araberara.

MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN SENITARTEKOAK ZAINTZEKO ESZEDENTZIA HARTU EDO LANALDIA MURRIZTU DUTEN LANGILEENTZAKO LAGUNTZAK

11. artikulua. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren betekizunak

Lehenik eta behin, artikulua honen **1. atalak** honako hau xedatzen du: “*Senitartekoak, hura zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu bada, mendetasuna aitortuta izan behar du, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen eta hura garatzeko arauen arabera, diruz lagundu daitezkeen jardunak irauten duen bitartean*”.

Mendekotasun- edo desgaitasun-ebazpen bat eskatzeak kanpoan uzten ditu balorazio-prozesuan edo itxaron-zerrendan dauden pertsonak. Horregatik, letra lodiz **gehitzea** proposatzen dugu:

“1. Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duen senitartekoak mendetasun-egoera aitortua izan behar du, edo eskaera hasita izan behar du, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta haren garapen-arauetan aurreikusitakoaren arabera, diruz laguntzeko moduko jardunak irauten duen bitartean. Balioespen-eskaeraren egiaztatzea aurkeztea nahikoa izango da laguntza eskuratzeko, betiere ondoren mendetasun-egoeraren aitortpena egiaztatzen bada”.

Bigarrenik, **3. atalean** (4.a izango litzateke aurreko proposamenaren arabera), **azpimarratutako testua ezabatzea** proposatzen da:

“3. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonak ez du modu iraunkorrean egoitza-zentro batean sartuta egon beharko. Gainera, eszedentziarako laguntzen kasuetan, mendetasun-egoeran dagoen senitartekoa ez da gizarte-zerbitzuen eguneko zentroen erabiltzaile izango”.

Gure ustez, mendekotasun egoeran dauden pertsonak **eguneko zentroak erabiltzea** ezin da arrazoi izan eszedentzien kasuan laguntzak ez jasotzeko. Izan ere, eguneko zentroak pertsona horien autonomia pertsonalaren garapen eta lan eremuak dira, eta, beraz, eszedentzian dagoen pertsonak egiten dituen zaintza lanekin bateragarriak izateaz gain, kasu batzuetan beharrezkoak ere badira.

13. artikulua. Ahaide bera zaintzeko laguntzen konkurrentzia

Artikulu horren 1. paragrafoak hau xedatzen du: “Mendetasun larrian (II. gradua) edo mendetasun handian (III. gradua) dagoen pertsona bera zaintzeko laguntza hori aldi berean eskatzeko eskubidea duten pertsona bat baino gehiago badaude, honako muga hauek ezartzen dira:

a) Mendekotasun handia duen pertsona bat zaintzeko (III. gradua), lan-eszedentzia bat eta lanaldi-murrizketa bat edo hiru lanaldi-murrizketa aldi berean.

b) Mendetasun larria (II. gradua) duen pertsona bat zaintzeko, lan-eszedentzia bat edo bi lanaldi-murrizketa aldi berean...

Gure ustez, mendetasun-maila bietan, **pertsona batek baino gehiagok eszedentzia hartzeko aukera** jaso beharko litzateke, zaintzaileek beren gain hartzen duten gaitzaren kalitatean duten inpaktuak malgutasun handiagoa justifikatzen baitute

ESZEDENTZIA ETA/EDO MURRIZKETENGATIKO LAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK

18. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

Gure ustez, **lanaldi partzialak ez dira, askotan, langileen hautua**. Gainera, kontratazio-modalitate orokortua da eremu feminizatuetan.

Gure ustez, aukera pertsonala ez bada, zaintzarako eszedentzian dauden gainerako langileentzako laguntza berberak mantendu behar dira.

Ondorioz, artikulu honetan, **1. atalean** letra lodiz nabarmendutako **gehikuntza** iradokitzen dugu:

“1. Honako hau da 365 egun naturaleko aldiari eta eszedentziak hartzen dituzten langileen lanaldi osoko **edo lanaldi partzialeko** kontratazioari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa:

a) 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatuarekin: 3.850 euro.

b) 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatuarekin: 3.236 euro.

”

Bestalde, uste dugu artikulu honetan jasotako **familia errenta-estandarizatuaren bi tartetako sistemak** ez duela behar bezala islatzen familien aniztasun ekonomikoa.

Hiru tarte sartzak aplikazio progresiboagoa, bidezkoagoa eta benetako ahalmen ekonomikoari egokituagoa ahalbidetuko luke. Gainera, proposamen hori guztiz koherentea da Dekretuarekin berarekin, zaintzaileak kontratatzeari buruzko 25. artikuluan hiru familia errenta-estandarizatua tarte ezartzen baititu (≤ 20.000 €, $20.001-50.000$ €, > 50.000 €), % 100, % 75 eta % 25eko ehunekoak aplikatuta. Gure ustez, 18. artikuluan bi tarte eta 25. artikuluan hiru tarte mantentzeak barne inkoherentzia sortzen du, araua ulertu eta aplikatzeari eragingo liokeena.

Azken batean, gure proposamenak araudiaren argitasuna indartzen du, sistemaren progresibitatea areagotzen du eta baliabideak birbanatzea ahalbidetzen du, gastu publiko globala handitu gabe.

19. artikulua. Zenbatekoa handitzea

Honako hau xedatzen da: “Seme-alabak zaintzeko eszedentzietarako eta lanaldi-murrizketetarako laguntzen zenbateko ekonomikoa % 30 handituko da, diruz lagundu daitekeen jarduerak irauten duen bitartean familia-unitatea egoera hauetakoren batean dagoen denborarako:

- a) Guraso bakarreko familiak.
- b) Familia ugariak.
- c) Mendekotasun larria (II. gradua) edo mendetasun handia (III. gradua) edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duen kideren bat duten familia-unitateak.

Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dagoen ahaidea zaintzeko laguntzen kasuan, % 50eko edo hortik gorako mendetasun larria edo mendetasun handia edo desgaitasuna, gutxienez, familia-unitateko bi kidek izan beharko dute...”

Gure ustez, **aitortutako mendetasun-maila alde batera utzita** eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dagoen unetik, % 30eko igoera aplikatu beharko litzateke seme-alabak zaintzeko eszedentziei eta lanaldi-murrizketei lotutako laguntzen zenbateko ekonomikoan, gainkostu ekonomikoa eta desgaitasunari lotutako laguntza-premia handiagoak direla eta.

Gainera, **egoera horretan gutxienez kide bat** dagoenean aplikatu beharko litzateke igoera, mendekotasun handia duen pertsona bakar bat egoteak kontziliazio karga berezia dakarrelako.

Azaldutako guztiagatik, honako **testu** hau **iradokitzen dugu** artikuluko honetarako:

“Seme-alabak zaintzeko eszedentzietarako eta lanaldi-murrizketetarako laguntzen zenbateko ekonomikoa % 30 handituko da, diruz lagundu daitekeen jarduerak irauten duen bitartean familia-unitatea egoera hauetakoren batean dagoen denborarako:

- a) Guraso bakarreko familiak.
- b) Familia ugariak.
- c) **% 33ko edo gehiagoko mendekotasuna edo desgaitasuna duen kideren bat duten familia-unitateak.**

Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dagoen senitartekoa zaintzeko laguntzen kasuan, % 50eko edo hortik gorako mendetasun larria edo mendetasun handia edo desgaitasuna, gutxienez, familia-unitateko **kide batek** izan beharko du...”

14 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK ZAINTEKO LANGILEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

23. artikulua. Onuradunen betekizun espezifikoak

Artikulu honetan adierazten den onuradun izateko baldintzetako bat da bi gurasoek **lanaldi osoak** dituztela egiaztatzea. “3. Familia-unitatea osatzen duten gurasoek lanaldi osoa (% 100) edo luzeagoa izan behar dute”.

Jarraian salbuespen batzuk eskaintzen badira ere, uste dugu baldintza hau mugatzailea dela, potentzialki, lanaldi partzialeko kontratazioak dituzten gurasoentzat, eta, partzialtasun-indizeen arabera, bereziki emakumeei eragiten dietenentzat, azaldu dugun bezala. Ondorioz, artikulu hau **berrikustea** gomendatzen dugu.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen du “*Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua*” izapidetzea, organo aholku-emaile honek aldatzeko egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2025eko abenduaren 19an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria